



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

EUSKO LEGEBILTZARREKO OSOKO BILKUREN ARETOAN IKUS-
ENTZUNEZKO EKOIZPENERAKO HD/SD KAMERAK PROZEDURA
IREKI BIDEZ HORNITZEKO ETA INSTALATZEKO BALDINTZA
TEKNIKOEN ORRIA ETA LEHIAKETA ESLEITZEKO MODUA





Telebista-kamera berriak osoko bilkuren aretorako

Aro digitalean egoteaz gain, telebistari dagokionez, goi-definizioaren garaia iritsi da kalitateari dagokionez, eta 16/9ren garaia formatuari dagokionez. Eta garai horrekin bat egin nahi du Eusko Legebiltzarrak bere telebista-emanaldiei dagokienez. Izan ere, ETB2 katetik egin diren kontrolari buruzko osoko bilkuren zuzeneko emanaldietan argi ikusi da Ganberak eman beharreko jauzi teknologikoa.

Zentzu horretan, lehiaketa honen bitartez eskuratuko den ekipamenduarekin gurea bezalako erakunde batean beharrezkoak diren kalitate-betekizunak eta etorkizuneko prestazioak lortu eta eskaini nahi dira. Lau kamera digital, goi-definiziokoak eta tamaina txikiak, hartara, hemizikloan bertarutzen diren pertsonak kamerak "gauza oldarkor" baten antzera ikus ez ditzaten.

Kameren kokapen berria

Telebistaz ematen den Legebiltzarraren eta legebiltzarkideen irudiaren hobekuntza, erabiltzen den kamera motarekin eta kameraren kokapenarekin lotuta dago. Gaur egun, 6 kamera daude hemizikloan: 4 kamera nagusi, errealizazioaren pisua bere gain hartzen dutenak (bat aurre-kamera da, bestea aurre-kamara da, halaber, baina orokorragoa; eta beste biak albo-kamerak dira), eta beste bi kamera daude, txikiagoak -bozen pantailaren ondoan ahokatuta-; azken bi hauek baliabide generikoetarako bakarrik erabiltzen dira eta kamera nagusiak baino kalitate baxuagokoak dira. Hain zuzen ere, 4 kamera nagusiak dira ordezkatu beharrekoak.

Gaur egun hizlarien tribunatik lortzen diren irudietan pikatu-efektu arin bat ikus daiteke eta hizlarien burua hartzen du planoak, aurpegia baino gehiago. Horrenbestez, kamera nagusia, hau da, aurre-angeluaz arduratzen dena, berriro kokatu behar da, hizlariaren begien altueran.

Ondorioz, gaur egun aipatutako kamerak duen kokapena aldatu eta 0,50 metro inguru beherago jarri behar da. Gainerako kameren kokapena ere aldatu behar da, kameraren angelua hobetuko duen desplazamendu bertikala ahalbidetzeko, eta zutabeetara hurbildu behar da, inpaktu bisuala arintzeko.





1. DESKRIBAPENA

Hurrenkera	Unitateak.	Ekipamenduaren deskribapena
1.1	4	Kolore digitaleko kamera trinkoa, 2/3" IT x 3 CCD, 14 bit dituen A/D-rekin. 1080i/50i, 720p/50p, 576/50i formatuekin bateragarria. Baioneta-muntaia. Panasonic AW-HE870E motakoa edo antzekoa.
1.2	4	Kamerarako HD/DSI irteera-txartela.
1.3	4	AC egokitzapena, konexio-kable guztiak barne hartuta.
1.4	1	Kameraren urrutiko kontrol-unitatea, 5 kamera arteko zuzeneko kontrolarekin, elikagailua eta 10 m-ko kableatua barne hartuta eta beharrezkoa den kable-luzapenarekin. Panasonic AW-CB400 motakoa edo antzekoa.
1.5	4	HDTV urrutiko kontrolerako lentea, 2/3 monitorizatua HD xede anitzeko kamerarako. Zooma x20. Foku-distantzia: 8.5 – 170 mm. Canon KJ20x8.5B KTS motakoa edo antzekoa, gaur egungo Radamec sistemaren bitartez kontrolatzeko.
1.6	4	Gaur egungo HK431y HK421 Radamec kokatzaileetarako eta broadcast Canon edo Fujinon optiketarako zoom eta fokuen berezko serbomotorren kontrolagailua, full servo. Kableatuaren gehigarriak kameraren kokapen berrietara iritsi arte.
1.7	1	16 sarrerako HD/SD zuzeneko kommutadorea. Irteera bikoitza pantaila anitzera Bi unitate bereizi, panela eta elektronika. 17 sarrerarekin, guztiak koadro-sinkronizazioarekin; 8 kolore-zuzenketarekin eta 4 Up converter-ekin. Pip bikoitza eta DSK bikoitza. Pantaila anitz bikoitza, 20 seinale arte ikusi ahal izateko. Panasonic AV-HS450E motakoa edo antzekoa.





1.8	400	m. kable koaxiala, DH/SDI bideo digitala emateko gaitasuna duena.
1.9	1	Kontsola berria edo gaur egungoa aldatzea. Erantsitako jarraibideen arabera.
1.10	1	Gaur egungo instalazioa kentzea, kanalizazioak kokapen berrietarako eraberritzea. Ekipoak kontsolan kokatzea, planimetria, kableatua eta integrazioa. Doikuntzak eta puntuan jartzea, sistemak ondo funtzionatu arte.
1.11	1	Entrenamendu teknikoko ikastaroa, 12 ordukoa gutxienez, Legebiltzarraren egoitzan.

Baldintza: Lau kameretarako eskainiko den optika Radamek sistemaren bitartez instalatu behar da. HK-431 bi buruk eta bi HK-421k osatzen dute (erabilgarri daude), hortaz, horiekin bateragarria izango da. Kableatuaren neurri unitarioak beranduago zehaztuko dira.

2. BIDEO KONTSOLA

Kontsola bat dago hemizikloko eta batzorde-areto bateko ekipamendu osoa gordetzeko. Eraberritzearen ondorioz soberan geratzen den materiala kendu eta ekipamendu berria jarri beharko da. Horretarako, kasuan-kasuan kableatuak berregin beharko dira.

Honakoa kontsolaren xehetasuna:

19"-ko 4 rack-unitateen zabalera, gurpilekin.

Behealdean 12 unitateko 4 idulki, ateekin.

70 cm-ko hegala duen mahaia.

Goialdean 19"-ko 9 unitateko lau modulu.

Aldaketa minimoa, mahaia berregitea eta goialdeko altuera 5 u. murriztea izan daiteke, bistaratze eroso pantaila anitza ahalbidetzeko. Konponbide estetikoagoak baloratuko dira.





3. ZEHAZPEN OROKORRAK

Eskaintzetan instalazioaren emate-epe maximoa betetzeko konpromisoa barne hartuko da, hortaz, epea ez da sei astetik gorakoa izango. Edozein kasutan, 2011ko irailaren 16rako amaituta egongo da instalazioa.

Esleipendunak informazio tekniko osoa aurkeztuko du ekipo bakoitzarekin batera. Atzerrian egindako ekipoei dagokienez, erabiltzeko eskuliburua Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetara itzulita aurkeztuko da.

Lau kamerekin eta zehaztutako elementuekin ekingo zaio bilkuren aretorako ekoizpen bideografikoaren instalazioaren berrikuntzari. Horrenbestez, sortuko den seinalea SDI zein HDSDI formatuan erabilgarri egongo da, bai eta hondar-aplikazioetan erabiliko den PAL bideorako ere.

Lehiakide interesdunek osoko bilkuren aretoa bisita dezakete, zalantzak argitzeko eta gaur egungo instalazioa ezagutzeko. Horretarako, ganberako Mantentze Zerbitzuarekin harremanetan jarri beharko dute.

Aretoaren barruan egingo diren euskarri berri, arotzeria, errementaritza eta elektrizitatearekin erlazionatutako kanpo-laguntzak erakundearen kontura izango dira.

4. BERMEA

Hornituko den ekipamenduak bi urteko bermea edukiko du fabrikazio-akatsen eta ager daitezkeen ezkutuko akatsen aurrean erantzuteko.

Instalazioa egin eta ekipamenduak fabrikazioari egoz dakizkiokeen akatsik ez duela egiaztatu eta urtebetera, jarritako fidantza itzuliko da.

Eskaintzaileek agiri bidez ziurtatu beharko dute fabrikatzaileen zerbitzu ofizialak bermatuko duela berme-epeak irauten duen bitartean beharrezkoa den laguntza teknikoa, bai eta berme-epea amaitzean beharrezkoa dena ere.





5. AUKERA GEHIGARRIAK

Oinarrizko konfigurazioa beharretara egokitzeko, lizitatuzaileek aukera gehigarrien zerrenda bat aurkez dezakete.

Eusko Legebiltzarrak aukera horiek balia ditzake ekipoak behar den bezala konfiguratzeko, oinarrizko eskaintzako osagaiak antzeko beste batzuegatik ordezkatzeko edo ekipo jakin batzuei lehiaketa honetan hasiera batean eskatutakoak baino prestazio hobek emateko, betiere lote bakoitzerako zehaztutako prezio maximoaren barruan egiten bada.

6. PRESTAKUNTZA OSAGARRIA

Oinarrietan adierazitako entrenamendu teknikoaren ikastaroaz gain, eskaintzaileak eskaintzan barne hartzea komeni dela uste duen beste hainbat ezagupen-alorretako prestakuntza-ikastaroak eskain ditzake, nahiz eta Eusko Legebiltzarrak ez duen inolako konpromisorik edukiko ikastaro horietan parte hartzeko. Edozein modutan, programatutako ikastaroetan parte hartzeko banakako prezioak adieraziko dira.

7. HAINBAT

Eusko Legebiltzarrak eskubidea du lizitatuzaileari aurkeztutako eskaintzan adierazitakoa egia dela baieztatzeko edo probatzeko eskatzeko.

